




Errefuxiatuak ilaran, Zaire eta Ruandaren arteko muga zeharkatzen.

REMY MAUVINIERE- AP

SU-ETENA ERDIESTE NAHI LUKETE NAZIO BATUEK ETA MOBUTUREN GOBERNUAK

Zaireko Gobernuak eta matxinoek elkarrizketak hasiko dituzte

Iazko urrian erreboltari tutsiak Mobutu Sese Sekoren gobernuaren kontra altxatu zirenetik lehen aldiz, aurrez aurre elkarrizketatuko dira Zaireko Gobernuak ordezkariek eta matxinoenak. Nazio Batuek eta OUAk gidatuko dituzte negoziazioak Hego Afrikan.

Agentziak / Pretoria

SU-ETENA lortzea eta Zairek duen krisiari irtenbide baketsua bilatzea da gaur Hego Afrikan hasiko diren negoziazioen helburua. Hego Afrikako Atzerri Ministerioak zehaztasunarekin eta isilean eraman nahi izan du elkarrizketen antolaketa, eta, ondorioz, azken ordura arte ez dute jakinarazi non eta noiz izango diren elkarrizketak. Atzo arratsaldean plazaratu zuten idatzi baten bidez, gaur goizean hasiko

direla eta Hego Afrikako hiriburu Pretorian egingo direla zehaztu zuten.

Nazio Batuek eta Afrikar Batasunerako Erakundeak (OUA) gidatuko dituzte elkarrizketak. Mohamed Sahnoun aljeriarra izango da bi erakunde horien ordezkariek.

Zaireko Gobernuaren ordezkariek, berriz, Honore Ngabanda izango da, hots, Mobutu lehendakariaren Segurtasun aholkularia. Joan den ostegunean iritsi zen Ngabanda Hego Afrikara,

zehazki Pretoriatik 30 kilometro-ra dagoen Lanseria aireportura. Ez zuen adierazpenik egin nahi izan: «Ez dugu prentsarekin negoziatzen, mahai baten inguruan egiten dugu, eta esan beharrekoa esan dugu Lomen», azaldu zuen Togoko hiriburuan, Zaireko krisiari buruz OUAk egin zuen bileraren aipamena eginez.

Erreboltarien ordezkaritzarik iritsi den ez du argitu nahi izan Hego Afrikako Gobernuak, baina hango prentsak kaleratu duenez, herenegun gauean iritsi zen. Bi-

zimi Karaha izango da armetan altxatu zirenen ordezkariek.

Aurrerago aipatu bezala, su-etenaren lortzea da elkarrizketen xedea. Hala ere, erreboltarien bozeramaile Raphael Chendak argi eta garbi utzi du eurek edozein bake eskaintza onartzeko Mobutuk dimititu egin beharko duela. Etienne Tshisekedi lehen ministro berriak bost ministerio eskaini dizkie erreboltariei, baina haiek uko egin diote eskaintzari, «finean Mobuturen menpeko gobernu» dela argudiatuta.

Borrokek okertu egin dute errefuxiatuen egoera larria

Agentziak / Geneva.- Azken bost hilabeteotan 20.000-100.000 errefuxiatu hutu hil dituzte Kongo-Zaireren Askapenerako Indar Demokratikoen Aliantzako (KZAIDA) tutsi erreboltariak, Roberto Garretton Nazio Batuetako ordezkariek bereziak atzo salatu zuten.

Zaire ekialdean dauden ehundaka milaka errefuxiatu ruandar eta burundiarrei laguntza humanitaria helarazteko bidea

egin dezatela eskatu zieten atzo Emma Bonino Europako Batasuneko komisiariak eta Nazio Batuetako agentzia humanitarioen arduradunek bai Zaireko Gobernuari bai Kongo-Zaireren Askapenerako Indar Demokratikoen Aliantzari. Gobernuaren indarrak eta Laurent-Desire Kabilak zuzentzen duen KZAIDA borrokan ari dira azken sei hilabeteotan, eta borrokek asko okertu dute errefu-

xiatuen egoera. «Gerra eremuan dauden ehundaka mila errefuxiatu eta batetik bestera dabilen Zaireko herritarren larrialdiko beharrian humanitarioak» aintzat hartzeko deia egingo die bi aldeei, asteburu honetan egingo dituzten negoziaketetan.

Egun bakoitzean 120 bat errefuxiatu ruandar hiltzen direla ohartarazi zuten atzo Errefuxiatuen Nazio Batuetako Goi Komisariatuak (UNHCR).

Nekeak, goseak eta gaixotasunak jota hiltzen dira errefuxiatuak. Azken hamardaketan errefuxiatu eremuetan Nazio Batuek zenbatu duten hildako kopuru handiena da hori. Horrez gainera, 650 hilotz lurperatu dituzte azken egunetan KZAIDAK kontrolatutako eremuan dauden Ubundo eta Kisangani hirien arteko behin-behineko errefuxiatu eremuetan. Kasese eta Biaron 384 gorpu gehiago lurperatu

dira azken hamabost egunetan, horietatik 250 astearteaz geroztik.

UNHCRko iturrien arabera, 100.000 errefuxiatu ruandar baino gehiago daude Ubundo eta Kisangani arteko eremuan. Tingi Tingi eremutik alde egin zuten gehienek KZAIDAK ordezkariek hara gerturatu zirenean. Baina ehundaka errefuxiatu daude Zaire ibaiaren alboan, eta beste hainbeste noraezan dabilta. X

Netanyahu prest dago EEBBen bitartekaritzarekin Arafatekin negoziatzeko

■ Zisjordaniako bi asentamendutan 358 etxe eraikitze baimena eman du Israel

Agentziak / Jerusalem

BENJAMIN Netanyahu Israelgo lehen ministroa prest dago Jasser Arafat Palestinar Aginte Nazionaleko lehendakariarekin biltzeko eta Camp David-eko 1978ko goi bilaren tankerakoa egiteko, Bill Clinton lehendakari estatubatuarren bitartekaritzari esker israeldarrek eta palestinarrek bake iraunkorra sina dezaten. Netanyahu Alemanian telebistari atzo adierazi zion posible ikusten duela sei hilabeteetan negoziatzea bake prozesuan aztertzeke dauden gaiak, betiere Israelen aurkako atentatuak eteten direnean. Baina hala ez balitz Camp Daviden tankerako goi bilera egitea proposatu zuen. 1978. urtean Egiptok eta Israelen bakea hitzartu zuten orduan Camp Daviden, lehendakari estatubatuarren udako etxean, EEBBtako lehendakari zen Jimmy Carterren artekaritzarekin. Netanyahu EEBBtara bidaiatuko du asteburu honetan eta Clintonekin elkarrizketatuko da bihar.

Ekialde Erdiko auzirako Bill Clintonen bitartekaritzarekin ados daude palestinarrek eta israeldarrek. Yitzhak Mordejai Defentsa ministro israeldarra Madeleine Albright Estatu idazkari estatubatuarrekin elkarrizketatu zen ostegun gauean, balizko negoziaketa horretaz eztabaizatzeko. Mordejai Israelgo irratia estatutari jakinarazi zion Albrightek ez ziola eskatu ekialdeko Jerusalemgo Har Joma asentamendu judu berriaren eraikitzea eteteko.

Netanyahuk ere garbi utzi du ez dituela geldiaraziko Har Joma asentamendua eraikitze lanak. Gainera, Zisjordaniako bi asentamendu judutako 358 etxebizitza eraikitzea baimendu zuen atzo Mordejai. Zisjordaniako 110 asentamenduetan etxea erosi nahi duten familiek, berriz, 3.000 dolarretik 15.000ra bitarteko mailegu hipotekarioa jaso ahal izango dute.

Zisjordaniako Hebron hirian istiluak gertatu ziren atzo palestinarren eta kolono juduen artean, eta 15 palestinar zauritu ziren. Elkarki harrika aritu ziren bi taldeak, baina kolonoak babesten zituzten Israelgo Armadako soldaduek gas negarreragileak eta gomazko balak erabili zituzten palestinarren aldetik. Orain hamabost bat egun hasi ziren istiluak Israelgo segurtasun indarren eta manifestari palestinarren artean, Jerusalem Israel eraikitzen ari den Har Joma asentamenduetatik protestatzeko. X